

MOZIO ARRUNTA, Gobernuaren Ordezkariordeztaren eraikina berreskuratzea dela eta

Reyes Carrere Zabala EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, **Espainiako Gobernuaren Ordezkariordeztaren eraikina berreskuratzeari** buruz.

JUSTIFIKAZIOA

2018an, Amara Berri auzoko bizilagun-talde batek *Gobernu Zibila Kultur Etxe* plataforma sortu zuenetik, asko izan dira eskaera horren alde agertu direnak. Honako hau eskatzen dute: Gobernuaren Ordezkariordeztaren eraikina, Pio XII.aren plazan dagoena, auzoarentzako kulturgune bihurtzea. Gogoratu behar dugu eraikin hori Donostiako Udalak 1954an emandako orube batean egin zela, Gobernu Zibil berriaren egoitza izateko.

Ehunka bizilagunek, pertsona garrantzitsu askok eta udal talde guztiek berehala agertu zuten eskaerarekiko atxikimendua. Proiektu honek, haren bultzatzaileen arabera, auzo sakabanatu batean bilgune gisa balio duen elementu bat izan nahi du, auzoak bere burua sendotu behar handia du eta.

Ezbairik gabe, 7.000 metro koadrotik gorako eraikin hau, erabiltzen ez dena, berreskuratzea helburu garrantzitsua da Donostiarentzat.

Esan beharra dago eskaera ez dela berria: 2017an, alkatea bera, Udalbatzak eskatuta, Espainiako Estatuko Gobernuari zuzendu zitzaion, eraikina berreskuratzeako aukera aztertzeko. Horretaz gain, hurrengo urteetan, askotan eztabaidatu da gai hori batzordeetan eta Udalbatzan. Hainbat alderdi politikok ere beren programan sartu zuten azken udal hauteskundeetan, agerian utziz babes sozial eta politiko zabala duen proiektua dela.

Hala ere, denbora pasatzen ari da eta errebindikazioak ez du Espainiako Gobernuaren erantzunik jasotzen, Amara Berriko auzo-elkarteen eskaera nagusietako bat izaten jarraitzen badu ere.

Kudeaketa ez da erraza izango, eta, beraz, kontua konpontzeko, erakundeek, gizarteak eta politika-munduak iraunkortasun eta irmotasun handiak erakutsi beharko dituzte. Hori guztiz beharrezkoa da, “promesa eternala” bihurtzea nahi ez badugu, behintzat.

Horiek horrela, EH Bildu udal taldeak mozio hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Espainiako Gobernuari Amara Berri auzoko Pio XII.aren plazan den Gobernuaren Ordezkariordeztaren eraikinaren titularitatea honako erakunde honi lagatzeko, herritarren beharrei aurre egiteko balio dezan.

Donostia, 2020ko azaroaren 6a

Reyes Carrere Zabala,
EH Bildu udal taldeko bozeramalea